

2014ko MAIATZAREN 12an BURUTU KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

Herriko Kontseilua herriko etxean bildu da, Vincent BRUren zuzendaritzapean, 2014ko maiatzaren 12an, 20:00etan.

Bertan ziren: Vincent Bru Jauna, Auzapeza, Bernadette Jougleux Anderea, Christian Devèze Jauna, Eliane Noblia Anderea, Frédéric Bardin Jauna, Didier Irastorza Jauna, Eliane Aizpuru Anderea, Henri Saint- Jean Jauna, axuantak, Anne-Marie Pontacq Anderea, Vincent Goytino Jauna, Christiane Hargain-Despéries Anderea, Patrice Dor Jauna, Yolande Huguenard Anderea, Jean-Jacques Lassus Jauna, Jean-Noël Magis Jauna, Peio Etchelecu Jauna, Maryannick Hirigoyen Anderea, Roger Barbier Jauna, Pascal Bourguet Jauna, Véronique Larronde Anderea, Argitxu Hiriart-Urruty Anderea, Philippe Bacardatz Jauna, Nathalie Aïçaguerre Anderea, Pantxo Michelena Jauna, herriko kontseilariak.

Barkatuak ala ez hor: Pascale Lespade Anderea, axuanta, Argitxu Hirigoyen, Corinne Othatcegy, Marie-Carmen Gonzalez Andereak, Camille JENVRIN Jauna herriko kontseilariak.

Ahalordeak: P. Lespade Andereak F. Bardin Jaunari, A. Hirigoyen Andereak R. Barbier Jaunari, C. Othatcegy Andereak E. Noblia Andereari, M.C. Gonzalez Andereak V. Larronde Andereari.

1 – Saioko idazkariaren izendatzea.

Aho batez bertan ziren kideek, Peio ETCHELECU Jauna saioko idazkari izendatu dute.

2 – URA/Saneamendu ez kolektiboa sindikatuan sartzea eta ordezkarien izendatzea.

Christian Devèze, axuant ordezkari Jaunak, saneamendu eskumenaren historikoa kolektibitatearen baitan oroitarazten du. Estatuak abian ezarri herri arteko lankidetzaren eskema egitasmoaren kariatara, saneamenduari lotu herri arteko egitura guztiak EPCI/HKEP bakar eta berdinen baitan biltzea aurreikusia da.

2014ko urtarrilaren 27an hartu deliberamenduaren bidez, Herriko kontseiluak erabaki du saneamendu ez kolektibo eskumena URA sindikatuari eskualdatzea.

2014ko martxoaren 3ko deliberamenduaren bidez, Herriko kontseiluak eskumen eskualdaketa eguna 2014ko apirilaren 1eko finkatu du.

Kanboko herriak egin eskaera honi haien iritzia agertu behar duten sindikatuko kide diren herri guztiak ez zuten deliberatu 2014ko martxoaren 3 eguneko.

Azken bi herriek (Beskoitze eta Basusarri) haien iritzia agertu berri baitute, komeni da beraz berriz deliberatzea eskumen honen eskualdaketa eguna finkatzeko, eta bi ordezkariak izendatzeko (tituludun bat eta ordezkari bat).

Bacardatz Jaunak galdegiten du zoin eragin ukan dezakeen diru mailan URA sindikatuan sartzeak bai eta zer interes duen eskualdatze horrek.

Devèze Jaunak erantzuten dio herriak ez duela diru gehiago ordaintzerik ez baitu langilerik SPANC-en ez eta mailegurik. Eskumen horren eskualdaketari esker, egitura oso baten zerbitzuak baliatzeko parada irekiko da, besteak beste 4 urte guziz burutu behar den hornikuntzen kontrola mailan.

Auzapez Jaunak oharrarazten du komeni dela saneamendu kolektibo baten eskumena atxikitzea, gure herrikideen interesaren onurako baita, prezioak, URA Sindikatuak praktikatzen dituenak baino apalagoak direlako.

Auzapez Jaunak proposatzen du, URA Sindikatu Anitzari egin behar den saneamendu ez kolektiboaren eskumen eskualdaketa, 2014ko maiatzaren 13ko finkatzea.

Auzapez Jaunak proposatzen du Christian Devèze Jauna ordezkari tituludun gisa izendatzea, eta Jean-Noël MAGIS Jauna orezko ordezkari gisa.

Onartua. Hiriart-Urruty, Aïçaguerre Andereak, Bacardatz eta Michelena Jaunak abstenitzen dira.

3 – SDEPA/PAES – Beste bi ordezkariaren izendapena.

Auzapez Jaunak oroitarazten du, 2014ko apirilaren 7an hartu deliberamendu baten bitartez, herriko kontseiluak bi ordezkari izendatu dituela (tituludun bat eta ordezko bat) herria PAESan ordezkatzeko:

- Tituluduna: Vincent Goytino Jauna
- Ordezkoa: Argitxu Hirigoyen Anderea

Sindikatu horren estatutuen arabera (5. artikulua) herriek ordezkari tituludun bat eta ordezko ordezkari bat 5 000 bizilaguneko zati hasi oro izendatzen direla. Kanboko biztanleria 6 670 herritarrez osatua izanki, komenigarria da beraz beste bi ordezkari izendatzea (tituludun bat eta ordezko bat).

- ◆ Auzapez Jaunak Roger Barbier Jauna proposatzen du ordezkari tituludun gisa.

Philippe Bacardatz Jaunak bere hautagaitza proposatzen du.

Isilpeko bozka bat burutzen da.

Roger Barbier Jaunak 24 boz lortu ditu
Philippe Bacardatz Jaunak 4 boz lortu ditu

- ◆ Auzapez jaunak Pascale Lespade Anderea proposatzen du ordezko ordezkari gisa.

Philippe Bacardatz Jaunak bere hautagaitza proposatzen du.

Isilpeko bozka bat burutzen da.

Pascale Lespade Andereak 24 boz lortu ditu
Philippe Bacardatz Jaunak 4 boz lortu ditu

SDEPA/PAESen ordezeko gehigarri gisa izendatuak dira:

- Tituluduna: Roger BARBIER Jauna
- Ordezkoa: Pascale LESPADÉ

4 – Barne araudia.

Lurralde kolektibitateetako Kode Orokorreko L. 2121-8 artikulua arabera, 3 500 bizilagun eta gehiagoko kolektibitateek barne araudi bat onartu behar dute Herriko kontseilua plantan ezarri ondoko sei hilabeteetan.

Auzapez Jaunak oroitarazten du herriko kontseiluak, 2014ko apirilaren 28an hartu zuen deliberamenduan, barne araudiaren finkatzea gibelaratu zuela, oposizioko taldeak, hastapeneko egitasmoari begira galdegin aldaketa batzuen ondorioz. Zehazten du lege artikulua karaktere arruntean agertzen direla, eta herriari dagokiona karaktere lodiz.

Auzapez Jaunak ondoko aldaketak proposatzen ditu:

I. Kapitulua - 4. artikulua: Dosierren eskuragarritasuna: Kontseilariak dosierak herriko etxean kontsulta ditzakete « 5 lanegunetan saioa aitzineko hiru egun osoen ordezk... »

II. Kapitulua - 8. artikulua: Batzordeen ibilmodea: deia kontseilari bakoitzari hamabost egun bilkura aitzin igorria izanen zaio, bost egunen ordezk

III. Kapitulua - 9. artikulua: Presidentgoa: « presidenteak hitza eskaintzen du » idatzia da « presidenteak hitza onartzen du »-ren ordezk

IV. Kapitulua – 17. artikulua ahantzia izan zen, beraz ondoko artikulua guztiak aldatuak dira.

IV. Kapitulua – 21. artikulua: Saio geldialdia: gehitua izan da: « kontseiluan ordezkatuak diren taldeek ere eska dezakete. Zernahi blokatze edo nahasmendu saihesteko gisan, talde bakoitzak geldialdi baten eskubidea baizik ez du saioa, besteak, kontseiluko kideen gehiengoak erabakirik gertatuko direlarik ».

V. Kapitulua - 26. artikulua: Txostenak: bi hizkuntzetan afitxatua izanen da euskarara itzulia izan orduko eta herriko internet gunean hedatua izanen da.

VI. Kapitulua - 28. artikulua: ordezkari bat axuant bati kentzea (azken paragrafoa) kodearen erreferentziaren gehitzea: CGCT/LKKOko L.2122-10 artikulua, (azken atala).

Hiriart-Urruty Andreak berriz plazaratzen du herriko batzordeetan zerrendako kide batek ordezkatzeko ahala izatea hauetariko batek ezin badu etorri, bereziki oposizioko ordezkari bat baizik ez duen batzordeetan. « Hor ez den pertsona bat ordezkatu ahal ez izatea ez da demokratikoa ».

Auzapez Jaunak oroitarazten dio proportzionalaren printzipioa errespetatua izan dela eta zehazten du ez dela testuetan ordezkari aurreikusia. Bestalde, bilkura egunak denon artean erabakiak dira.

Aicaguerre Andreak adierazten du arazoa ez dela bilkuraren eguna baizik eta azken minutuko ustekabeko bat: eritasuna etab...

Auzapez Jaunak gehitzen du garrantzitsua dela batzordeetako kideak berdinak izan daitezen. Mementoko, mandatariak permanenteak dira. Horrela segitzea proposatzen du eta zinez arazo bat baldin bada, hitzematzen du bere taldearekin berriz eztabaidatuko duela.

Michelena Jaunak adierazten du oposizioko kide bakoitza behin baizik ez dela aurkeztua izan. « 8ren artean burutsuagoak gira 5en artean baino »

Auzapez Jaunak oroitarazten du batzordeak nola osatuak izan diren: legearen arabera, ordezkari-tza proportzionala maila azkarrenaren printzipioa atxikia izan dela.

Michelena Jaunak azpimarratzen du « legearen irakurketa bat » dela eta Auzapez Jaunak erantzuten dio bere taldearen jarrera atxikitzen duela.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

Onartua. Kontra bozkatzen dute: Argitxu Hiriart-Urruty Andereak, Philippe Bacardatz Jaunak, Nathalie Aïçaguerre Andereak eta Pantxo Michelena Jaunak.

5 – Orotariko gaiak.

✓ Errobi Herri elkargoa.

Auzapez Jaunak seinalatzen du elkargoko kontseilua joan den maiatzaren 7an bildu dela gaikako batzorde iraunkorren plantatzea eta kideen hautatzea burutzeko gisan. Zehazten du Hiriart-Urruty Andereak galdegin bi postuetarako, herriko gehiengoaren hautetsi baten hautagaitza kendu duela.

- 1 – Ingurumen batzordea: Jogleux Anderea eta Goytino Jauna
- 2 – Neurri ekonomiko batzordea: Aizpuru Anderea eta Irastorza Jauna
- 3 – Esparruaren antolaketa batzordea: Jogleux eta Hiriart-Urruty Andereak
- 4 – Finantza batzordea: Auzapez guziak
- 5 – Kultura batzordea: Jogleux eta Noblia Andereak
- 6 – Euskara batzordea: Hiriart-Urruty Anderea eta Irastorza Jauna
- 7 – Komunikazio batzordea: Jogleux Anderea eta Lassus Jauna
- 8 – Langile batzordea: Irastorza Jauna
- 9 – Eskaintza deialdi batzordea: Devèze Jauna (ordezkoa)

Sindikatuaren baitako ordezkarien izendatzea:

- 1 – Scot/Lae sindikatu anitza: Tituludunak: Bru Jauna eta Bardin Jauna
Ordezkoak: Hiriart-Urruty Anderea eta Irastorza Jauna
- 2 – Bil Ta Garbi sindikatu anitza: Bru Jauna (tituluduna)
- 3 – Bizi Garbia sindikatu anitza: Ordezkaririk ez

Euskal Herri Tokiko Lur Erabilpen Erakunde Publikoaren baitako ordezkarien izendatzea: Bardin Jauna (ordezkoa)

✓ Tokiko demokrazia baten plantan ezartzea.

Auzapez Jaunak hitza Hiriart-Urruty Andereari ematen dio, printzipiozko proposamena irakur dezan eta ondokoa proposatzen du:

- 1- Herriko kontseiluak onar dezan demokrazia parte hartzailea betetzea herriaren kudeaketan
- 2- Batzorde bat ardura dadin proposamenak egitea Kontseiluari deliberatzeko.

Auzapez Jaunak erantzuten du tokiko demokrazia plantan ezartze horrek eztabaida garrantzitsuak eragin dituela bere taldearen baitan. Zenbait elementu garrantzitsu atxikiak izan dira: « Bozkaziale batzuk ez kontsultatuak.. » « Pentsatzen dugu zaigu ez garela zinezko bizirik bereizten gaituen burbuila arunt hermetiko batean bizi ». Zehazten du hiritar, elkarte eta hautetsi andana batekin biltzen dela eta ez du uste 6 urtez erabakiak herritarrekin neholako loturarik gabe hartuak izanen direnik.

Auzotegietako batzordeen sortzeari buruz, Auzapez Jaunak dio proposamenaren aldekoa dela. Loturak azkartu behar dira auzotegi desberdinekin. Lan, entzute, eztabaida saio bat daitekeen auzotegi biltzarra, hilabeteen behin berderen burutzea nahi luke. Horretarako, Jogleux Anderea auzotegi bakoitzeko inguru geografikoak marrazteaz arduratuko da.

Aldiz, Auzapez Jaunak oroitarazten du gehiengoaren taldea ez dela ados auzotegi batzorde horiek erabakitzeko ahala izan dezaten. Batzorde horiek, gure herritarrekin lotura bat atxikitzeke beste molde bat izanen dira.

Herriko batzordeak kanpoko pertsona batzuei irekitzeko eskaerari, Auzapez Jaunak argitzen du hautetsiek Herriko Kontseiluko tendentzia desberdinak proportzionalki ordezkatu behar dituztela. Kanpoko pertsona baten esku hartzea ikusten ahal da zenbait puntu berezietan ikuspegi zerbait ekartzeko gisan baina printzipioari dagokionez, nahi du herriko batzordeak hautetsiez bakarrik osatuak izan daitezen.

Hiritarrek herriaren kudeaketan parte harrarazteko gisan, herriko kontseiluak aholku batzordeak sortzen ahal dituen Lurralde kolektibitateetako Kode Orokorreko L.2143-2 artikulua irakurtzen du Auzapez Jaunak. Batzorde honek ez du neholako erabakitzeko ahalmenik, iritziak baizik ez ditu ematen. Gehiengoak du batzorde horien sortzea erabaki behar.

Michelena Jaunak kanboko auzotegien egoera orokorrari buruzko oharra egiten du, burgu zentral bat eta « ohetegi » auzotegiak aipatuz.

Auzapez Jaunak ez du bat egiten ikuspegi horrekin. « Auzotegi guziak entzun behar dira, badira bizilagun mota berri bat ekartzen dituzten auzotegiak, egoiliar berriak. Haiengana gehiago joan behar dugu ez dezaten haien burua baztertua senti ».

Michelena Jaunak azpimarratzen du gauza berria dela auzotegien iritzia kontutan hartzea.

Jogleux Andereak erantzuten dio ez zela hor auzotegi batzorde horiek plantan ezartzeko lehen bilkuran. Iragan sei urteetan gaindi, auzotegi bilkura batzuk antolatuak izan dira, besteak beste Assantza eta berezikiago burgua hiri barneko obren arabera.

Michelena Jaunak oharra egiten du ez zaiela eskaera guziei erantzun bat ematen, eta Auzapez Jaunak erantzuten dio zenbait gaietan iritzi desberdinak agertzen ahal dituzten herritar guziak entzuten dituela.

Hiriart-Urruty Andereak xehetasun batzuk galdegiten ditu Assantzako erakusketari buruz.

Auzapez Jaunak erantzuten dio Pablo Tillac margolaria eta Jesus Echevarria zizelkariari buruzko erakusketa bat pentsatua dela eskola garaia bukatu aitzin Assantza egoitzan eskoletako ikasleentzat. Erakusketa hau, Claude Dendaletcherekin lankidetzan burutua izanen da.

Bilkurari bururapena 21:45etan ematen zaio.